

# noaua



**Martxoaren 8a**

**Zu ere**

**beharrezkoa zara**





**OGI BERRI**  
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...  
IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)  
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

DENBORALDI  
BERRIA



**Marije**  
Arropa denda



[facebook.com/marijearropadenda](https://facebook.com/marijearropadenda)

Lehenengo 6  
erosleentzako,  
garaje bikoitza  
banakako  
prezioan!

**ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA**

**188.000 € tik**

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi,**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

**VIVIENDAS LANIN S.L.**

Lazkano Pasealekua, 1ª Behea  
20009 Donostia

E.: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



## Albiste iruditan

# Lan gatazka konpontzeko babesa eskatu dute IAT-ITVko langileek

Ohi baino jendetsuagoa izan zen otsailaren 25eko osoko ohiko bilkura. Urnieta eta Irungo IAT-ITV lantegietan bizi duten gatazka Usurbilgo Udaleran eraman baitzuten langileek. Bilkura hasi aurretik, elkarretaratzea burutu zuten udaletxe atarian. Bizi duten egoera argi islatzen zuten, mobilizaziorako baliatu zuten pankartako aldarrak; "ITV 8 hilabete greban. Akordiorik gabe bakerik ez". Zortzi hilabete daramatzate greban, enpresarekin akordio batera heldu nahian. Gatazka honen beste aldearekin, enpresako zuzendari-tzarekin, hiru bilera egin dituzte denbora tarte honetan. Konponbideren bat bilatzeko azken bi saia-kerak duela hamabost egun, baina momentuz ez dira adostasun batera heldu. Enpresako zuzendari-tzak publikoki gatazka konpontzeko asmoa erakutsi arren, gero akordioa sinatzeko pausoa ez dute-la ematen diote langileek.



Azken udalbatza plenoan, IAT-ITVko langileek elkarretaratzea egin zuten udaletxe aurrean.

Egoera honetan zirela, mozioa erregistratu zuten udaletxean, azken osoko bilkuran aztertua eta bozkatua izan zedin. Langileok bereziki erakunde babesa jaso nahi dute, "behar beste mugimendu burutuz, Eusko Jaurlaritza presatzeko". Milaka gipuzkoarrei eragiten dien gatazka konpondu nahi dute lehenbailehen, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gidariek euren ibilgailuei azter-

keta teknikoak burutzeko gunea libreki hautatzeko eskubidea bermatzea eskatzen dute. Zerbitzu duin bat eskaini nahi diete erabiltzaileei. Eskakizunok biltzen zituen langileok aurkezturiko mozioak.

Gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak, EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNVren aldeko bozkekin. Hamaikabat abstenitu zen.

### Elkarretaratzea udaletxe aurrean

Osoko bilkura aurretik udaletxe atarian bilduta zuden IAT guneetako langileak, saioa hasitakoan udalbatza aretora igo ziren. Mozioaren puntua aztertzeko unea heldutakoan, erregistratua zuten testuaren gaineko zenbait azalpen eman zituzten. Aipatu moduan, udalbatzaren babesa jaso zuten IAT-ITVko langileek.

## Laburrean

### Afari beganoa

Ohi bezala, martxoko bigarren ostegunean, hilaren 13an, iluntzeko 20:30etatik aurrera Usurbilgo Gaztetxean. Aurrekoetan bezala, otordu goxo-goxoa dastatzeko aukera dago, borondatearen truke.

### 1975eko kinto afaria

Martxoaren 15ean ospatuko dute, Saizar Sagardotegian. Afaritara joateko asmoa dutenek, martxoaren 12a baino lehen eman beharko dute izena, 620 800 099 telefono zenbakira deituta.

### Jaiak, uztailaren 1etik 6ra

Aurtengoa, Santixabel jaiak, uztailaren 1etik 6ra ospatuko dira. Hala erabaki zen Jai Batzordearen bileran. Martxoaren 31n astelehena egingo da bilera berri bat, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

# noa.ua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 // elkarte@noa.ua.com // www.noa.ua.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitate:** Bea Alda,

publizitate@noa.ua.com.

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

**erredakzioa@noa.ua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantza  
Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria  
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,  
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,  
Denis Elortza, Pello Aranburu,  
Xabier Aranburu, Inma Balda,  
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,  
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia  
Torregarai eta Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

## Ostiraletan kantua

Musika, besteak beste, terapia bezala ere erabili izan da ia betidanik. Historiaurreaz geroztik hasita dauzkagu horren testigantzak. Badakigu musika presente zegoela erito magiko klase askotan. Egiptoarren papiroetan (3.500 urte K.a.) agertzen da lehen aldiz idatzirik gizakiarengan duen eraginaz: gai da gorputza sendatzeko, arima garbitzeko, bihotza lasaitzeko... Bibliak ere kontatzen du nola Dabidek zitara joaz lasaitzen zuen Saul erregea espiritu gaiztoaren eraginez hiraz beterik jartzen zenean.

Parrokiako zaharrak bisitatzen ibiltzen gara boskote bat; besteak beste Lamourous, Berio, Zorroaga eta Matia zentroeta. Eta duela gutxi hementxe topo egin nuen bi musikoterapeutarekin; izan ere, esperimentu aitzindari bat jarri dute martxan gerontologiko horretan: zaharrekin koro bat osatu eta musikaren bitartez agure eta zenbait ezinduren bizitza kalitatea hobetu.

Jeronimo izeneko bat bisitatzera

joan ginen eta koro berri horretan kantatzen ari zen. Tomas Hernandez eta Yamel Romero musikoterapeuta profesionalak dira. Yamelekin hitz egiteko aukera askotan izan dut. Bien artean sortu dute Bankiak subentzionatutako proiektu berri hau.

Emaitzekin harriruta daude: "Musikoterapia saioan zaharren zenbait ezintasun desagertu egiten dira eta arratsaldea askoz lasaiago pasatzen dute; batzuek hizkuntzarekin arazok dituzte eta musikaren bitartez errazago komunikatzen hasten dira".

Dena da mesedegarri. "Nahiz eta ahalmen asko galtzen ari diren eda dearengatik, saio hauetan oso aktibo agertzen dira, adi, musika tresnaren bat jotzen dute; memoria asko moteldu zaie, baina kantatzen hasten diren bezain pronto letrez gogoratzen dira; eta batez ere inoiz ez dute ahazten ostiraletan kantu saioa dutela; batzuk asko hunkitzen dira, izan ere melodiaren batek beren alaba edo senarra gogorarazten die eta; memoria lantzeaz gain, harremanak hobe-

tzen ere saiatzen gara, bai zentrokoekin eta baita beste egoitzakoekin ere. Egoitza ezberdinekoak elkartzeari garrantzia handia ematen diogu".

Maiatzean hasi ziren lan honetan eta guztiz onuragarritzat jotzen dute. "Pertsona hauen duintasuna lantzen dugu musikaren bitartez, nortasuna berreskuratzen laguntzen dien abesti batzuekin, oroitzapen atseginak ekartzen dizkien zenbait kanturekin..."

Esperientzia honetan 60 agure parte hartzen dute; horietatik 15 emakumezko eta bi gizonezkoen artean koro bat osatu dute eta emanaldi bat eskaini zuten Gabonak inguruan. Hain zuzen ere, guk bisitatu genuen laguna "Boga, Boga" entseatzeko ari zen. Bere kide batek abesti bakoitza irrintzi batez bukatzen zuen. Kontzertu honetan duobate eskaini zuten "Urkok" eta bere amak, koroko kidea da eta. Matiako psikologo batek dionez alzheimerak edo beste ezintasuna edukitzeak ez du esanahi aulki batean eserita egon behar dutenik egun osoz.

Kontzertu bat eskainiz ireki egiten du zentroa hiritarrentzat eta erakutsialdi berean agureek dituzten gaitasunak.

Zentro hauetan ez dute profesionalek bakarrik lan egiten; musika zale batzuek ezagutzen dituzten zaharren belarriak goxatu eta bihotzak berotzen saiatzen direnak eta jakina, musutruk. Horietako bat da nire lagun Joxe Mari Soroa. Azkenengo aldiz Lamourous zentroan topo egin nuen berarekin. Galdetu nion ea zer suposatzen zuen berarentzat zahar etxeetan kantari ibiltzeak. Eta honela erantzun zidan: "Nire gitarraz lagunduta kantatzea da niri gehien gustatzen zaidana. 800 kanta saio eman dituztadan; nire asmoa da 1.000 emanaldira iristea. Kobratzen dieten saria irribarra da; horrek ez du diru zorroa betetzen, baina, bai bihotza".

Platon handiak esaten zuen musika jainkoen erregalia zela. Bejondeiela dohain hori gure zaharren bizitza, askotan hain zaila, alaitzen saiatzen diren guztiei.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | **Luis Aranalde** | Maialen Unanue | Joxe Piñas | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

## Josune Urkola Larrarte, udalbatzako kide berria

EAJ-PNV-ko bozeramaile berria izango da Usurbilgo Udalean, legegintzaldiko azken txanpa honetan. Gogoan izan, 2015ean ospatuko direla hurrengo udal hauteskundeak. Urkola osailaren 25ean burutu zen osoko ohiko bilkuran izendatu zuten zinegotzi. Ahalik eta ondoen egiten saiatuko dela zioen, kargua har-

tu berritan egin zituen lehen adierazpenetan. Udalbatzako gainerako kideek ongi etorria eman zioten udal ordezkari berriari.

Hurrengo hauteskundeak ospatu arte behintzat, Andoni Atxegak utzitako lekua hartuko du Urkolak. Atxegak, urtarrilaren 28an burutu zen osoko ohiko bilkuran utzi zuen udal

ordezkari izateko kargua. Andonik udal jarduna bere bizimoduarekin batera ezina zitzaiola adierazi zuen eta horregatik dimititzea erabaki zuela. Azken hitzok, Atxegak gainerako udal ordezkariak agurtu nahi izan zituen. Udalbatzaren izenean, Mertxe Aizpurua alkateak Atxegak eginiko lana eskertu eta gainerako udal taldeekin

izan duen harreman onagatik zorionduta, eta aurrera begira zorte ona desioz agurtu zuen EAJ-ko udal ordezkaria izandakoa.

Joan den asteko osoko ohiko bilkuran kargua hartu ostean, Josune Urkola Larrarte da beraz, EAJ-PNV taldeak udalbatzan izango duen ordezkari berria.

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**txirriStra**  
**TABERNA**



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Adostasun maila handiagoa, Txagañetako eremuaren gainean

Jada ibilbide luzea duen gai honi loturiko erabaki berriak hartu zituen udalbatzak, iragan astean burutu zen osoko ohiko bilkuran. Aginagako Txagañetari buruz ari gara. Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako S-4 izendapena duen eremuko ezaugarri fitxaren 10 aldaketa puntuala hasieraz onartzea erabaki zuten urriaren 29an buruturiko osoko ohiko bilkuran, eta gehiengo osoz. Gerora jendaurrean egon den epean, bi alegazio aurkeztu dira. Alegaziook partzialki aintzakotzat hartu eta Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Txagañetako Ezaugarri Fitxaren Aldaketa (10. Aldaketa) Puntualari behin behingo onespina eman zitzaion gehiengo osoz azken osoko bilkuran, EH Bildu, PSE-EE eta EAJ-PNV-ren aldeko bozkekin. Hamaikabat abstenitu zen.

## Karobia babesteko nahia

Aginagako eremu honetarako proposatzen den aldaketa nagusia, Mertxe Aizpurua alkatearen esanetan, zera da; Txagañetan industriagunera bideratzea aurreikusten zen lur zatia murriztea. Gainerako eremua, nekazal lurretarako baliatuko da. Honez gain, Usurbilgo Udalak ingurune hartan kokatua dagoen karobia babesteko duela iragarri zuen eta



**Aginagako Txagañetan, industriagunera bideratzea aurreikusten zen lur zatia murriztuko da onartu den aldaketarekin.**

gune honetarako sarbidea ere hobetuko dutela. Gai honek desadostasun ugari sortu ditu. Baina desadostasunok gaintzeko bidean direla zioen alkateak azken osoko bilkuran. Une honetan, Aginagako eremu honen bueltan adostasun maila lehen baino handiagoa dela adierazi zuen.

Azken osoko bilkuran udalbatzak hartutako erabakiaren espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igorriko du Usurbilgo Udalak, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari dagokion txostena egin diezaion.

## Omenaldia, 75 urte bete dituzten Santuenerako bizilagunei

Lidia Mallo Ramos, Rafael Ibarгойen Alzaga, Maria Bautista Zubiria Eguzquiza, Maria Pilar Ruano Holgado eta Marciana Bachiler Cotrina omenduko dituzte, igande honetan, martxoaren 9an Atxega jatetxean ospatuko den ekitaldian. Hitzordua, Santuenerako Gure Elkartek antolatuta du.

## Elikadura ekologikoari buruzko hitzaldia Udarregi ikastolan

Martxoaren 13an, arratsaldeko 18:00etan hasita, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. "Zergatik elikadura ekologikoa Haur Eskolan eta ikastolako jangeltan?" galdera honen bueltan antolatuta dute datorren asteko solasaldia, Hitz Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkartek, Haur Eskolako Guraso Taldeak eta Ekolapikok. 0-16 urte arteko ikasleen aita-amei zuzendua dago.



## Jubilatu Astea, martxoaren 17tik 24ra, Gure Pakearen eskutik

Irteera, bazkari, antzezlan eta hitzaldiak antolatu ditu Gure Pakea Elkartek. Zumaia aldera egingo duten irteeran parte hartzeko eta Aialde-Berri sagardotegian bazkaltzeko, aurrez eman beharko dute izena. Martxoaren 13a baino lehen, Gure Pakea Elkartek Artzabalen duen bulegoan.

### Martxoak 17, astelehena

17:00 Hitzaldia (erdaraz): "Sendagai generikoak". Hizlaria: Karmen Ariz.

### Martxoak 18, asteartea

17:00 Hitzaldia (bi hizkuntzetan): "Arazo larriekiko erreakzioa". Hizlaria: Rafael Kortabarria.

### Martxoak 20, osteguna

16:30 Antzezlan: "Vivir en Villa Tatiritaina". Oñatiko jubilatuen eskutik.

### Martxoak 21, ostirala

9:00 Irteera (Usurbilgo tren geltokitik): Zarautz-Axkixu-Zumaia. Bazkaria, Zumaia jubilatuen elkartean. Prezioa: 18 euro.

### Martxoak 23, igandea

12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Aialde-Berri sagardotegian. Sagardotegiko menua: 20 euro bazkideentzat, 27 euro gainerako jubilatuentzat. Izen ematea: martxoaren 13a arte, Artzabalgo Gure Pakea Elkarteko bulegoan.



### Jubilatu txapelketetan saritutakoak

Azken asteetan, hainbat txapelketa jokatu dituzte Gure Pakea elkarteko kideek. Goiko argazkian dira modalitate ezberdinetan sarituak izan direnak.

**ALKORTA  
AUTOZERBITZUA**

**Baserriko haragia**

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

**BORDATXO**  
taberna

**Pintxo Bereziak**

943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

# Garapen bidean diren herrietako hizkuntzak normaltzen lagunduko du Udalak



Bi urteko hitzarmena sinatu dute Udalak eta Garabidek.

**H**orretarako, Garabide elkarteak lehendakari Andoni Barreñak eta Usurbilgo Udaleko alkate Mertxe Aizpuruak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten otsailaren 28an, udalbatza aretoan. Hitzarmenaren bidez, "Usurbilgo Udalak 6.000€ko dirulaguntza bideratuko dio 2014 eta 2015 urtean. Garabidek berriz, munduko hizkuntzen biziberritze proiektuak indartzen lagunduko du. Modu intentsiboan, kixua, nasa, nahuatl eta kaqchiquel herrienak eta bigarren mailan, maputxe, aimara, maya yukateko, amazigh eta kurdoena. Horretaz gain, usurbildarrengan hizkuntza minorizatuetikiko sentsibilitatea pizteko Udalarekin adostutako ekimenean parte hartzeko konpromisoa hartzen du Garabidek".

## HELBURU NAGUSIAK

Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza normalizatzekeo egitasmoak sustatuko dira, Udalak datozen bi urteotan emango duen laguntzaren bidez. Hartara, ondoko helburuok bete nahi dira:

## HITZARMENA

***"Udalak 6.000 euroko dirulaguntza bideratuko du 2014 eta 2015ean. Garabidek berriz, munduko hizkuntzen biziberritze proiektuak indartzen lagunduko du"***

- 1.-Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuerekin lankidetzaren bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.
- 2.-Munduko Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuerekin eragileekin lankidetzaren proiektuak garatzea. Lankidetzaren proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alar batzuetan gauzatzen dira, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarriaz.
- 3.-Euskararen eta euskal kulturaren garapen lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuerekin lankidetzarako beraien esperientzia eskaini dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiaz".

## KOOPERAZIO ILDO BERRIA

Garabide elkarteak eta Udalak sinatu duten hitzarmenarekin, kooperazio ildo berri bat zabaldu da Usurbilen; garabidean diren herrietako hizkuntza komunitate minorizatuerekin babesteko. Halere, herriok laguntzeko Udalak egindako ekarpenak ez dira gaurkoak. Aurtengo aurrekontuetan, 77.218 euroko diru partida erreserbatua du, alor honetara bideratzeko.

Baina aurretik ere proiektu ezberdinen bidez, ekarpenak egin izan ditu urtero Udalak. "Ohikoa izan dugu azken urteetan Euskal Fondoaren bidez eta herritarrek aurkezten dizkiguten proiektu ezberdinen bidez, Ertamerikan zein Hegoameriketako herrietan, proiektu ezberdinak bultzatzea. Tartean, Kubako zahar etxe bat sortzeko, El Salvadorren ur hornidura sistemak finkatzeko, Chalatalengoko hondakinen kudeaketan, Sahara errefuxiatu kanpamenduetarako laguntza...", berri eman dute Usurbilgo Udaletik.

## Garabide, nor gara

- Kooperazio era berria egiten duen elkarte da Garabide.
- Esperientzien elkarbanaketan oinarrituriko lankidetzaren.
- Kooperazioa laguntza asistentziala izan ez dadin herri batek ez du galdetu behar bakarrik zenbat diru daukan emateko, baizik eta beste hau: ze esperientzia daukan herri gabetuekin konpartitzeko. Hortik sortzen da kooperaziorik duinena eta aberatsena.
- Ze esperientzia multzo dauka Euskal Herriak elkarbanatzeko? Zalantzarik gabe, bere nortasunaren bizi-ahalegina eta horretarako garabideen esperientzia behintzat hor dauka. Hori herri gabetuekin konpartitzen asmatzea berebiziko ekarpena izan liteke kontinente guztietan garapenerako lankidetzaren arloan.

- Bidelagun nahi zaituztegu. Garabide Elkarteak ateak zabaldu nahi dizkizue gutxietsitako hizkuntzaren errekonstruziorako eta zuen herriaren identitateari eusteko hainbeste lan egin duzuen eta egiten ari zireten guztioi, Euskal Herrian eta munduko edozein herritan.

<http://www.garabide.org/euskara/>



Garabideko kide batzuk, tartean Jon Sarasua, Herri Indigenen Biltzarrean, NBEn.

# Martxoak 8ko ekimenak, abiatzear



Azaroaren 25eko ekitaldian, dantzan parte hartu zuten kideetako batzuk. Martxoaren 8a ere aldarrikapen eguna izango da.

**P**arekidetasun Kontseiluak eta Gazte Mugimenduak, hau da, Gazte Asanbladak eta Ernaik, elkarlanean osatu dute, martxoaren 8aren bueltan, egunotan herrian ospatuko diren hainbat ekimen. Hitzorduon artean, badira aurrez izen ematea eskatzen duten zenbait deialdi. Denboran gertuen dugun ekimenetik hasita, ostegun honetan, bertso-afaria ospatuko da, 21:00etatik aurrera Artzabalen. 70 lagunentzako lekua dago, plaza mugatuak beraz, eta aurrez erosi beharra dago sarrera. Artzabalen bertan edo Txiribogan.

Parekidetasun Kontseiluak antolatu du Miren Amuriza, Ane Labaka eta Alaia Martin bilduko dituen ekitaldia. Baita, martxoaren 14 eta 15erako Potxoenean antolatu duen autodefentsa feminista tailerra ere. Emakumeei zuzenduriko saio hauek parte hartu nahi duenak ere, izena aurrez eman behar du. Doan, parekidetasuna@usurbil.net helbidera idatzita.

## BERTSO-AFARIA

**Artzabalen, 70 lagunentzako lekua dago eta aurrez erosi beharra dago martxoaren 6an egingo den bertso afarirako sarrera. Artzabalen bertan edo Txiribogan**

Ekitaldiori, Usurbilgo Gazte Mugimenduak astebururako antolaturiko beste bi hitzordu gehitu behar zaizkie; mikromatxismoei buruzko hitzaldia ostiral honetan, eta kontzertu gaua, larunbatean, martxoak 8, Emakumearen Egunean hain zuzen.

### Martxoak 6, osteguna

- 21:00 Bertso afaria Artzabalen: Bertsolariak: Miren Amuriza, Ane Labaka eta Alaia Martin. Gai jartzailea: Amaia Agirre.
- Afarirako txartelak: 15 eurotan salgai Txiribogan eta Artzabalen. 70 lagunentzako lekua.
- Menua: ongietorri aperitiboa, gula eta otarrainxka entsalada epela, entrekota goarnizioare-

kin, eta etxeko pantxina txokolata beroarekin. Kafea eta edaria barne.

- Antolatzailea: Parekidetasun Kontseilua.

### Martxoak 7, ostirala

- 22:00 Hitzaldia Usurbilgo Gaztetxean: "Maitasun erromantikoa eta mikromatxismoak". Hizlaria: Ainara Santamaria.
- Antolatzailea: Gazte Mugimendua.

### Martxoak 8, larunbata

- 23:00 Emakumeon Eguneko kontzertu gaua, Usurbilgo Gaztetxean.
- Antolatzailea: Gazte Mugimendua.

### Martxoak 14-15 Potxoenean

- Ostirala: 17:00-20:30. Larunbata, 9:30-14:00.
- Autodefentsa feminista tailerra emakumeentzat, Maitena Monroyrekin. Doan. Izen ematea, aurrez: parekidetasuna@usurbil.net
- Antolatzailea: Parekidetasun Kontseilua.

## Udal lan deialdiak

### Bitarteko kontu hartzaitza lanposturako deialdia

Interesdunek eskabideak aurkezteko martxoaren 18ra arteko epea izango dute. Usurbilgo Udalak egunoko lan deialdi honen oinarriak, otsailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean kontsulta ditzakezue, baita Usurbilgo Udalaren usurbil.net web orrialdean. Deialdi honen bidez, "Usurbilgo Udalean epe motzean behar den bitarteko kontuhartzaile funtzionarioa hautatzeko prozesua" burutuko da, "oposizio sistema erabiliz".

### Igeltsero ofizial eta peoi bana kontratatze lan deialdiak

Izen ematea: martxoaren 10era arte, lanbide.net atarian. Lanaldia: bost hilabete. Egitekoa: Usurbilgo hainbat guneetan hormigoizko adokinez eraikita eta hondatuta dauden zoladurak konpontzea.

Parte hartzeko, ondorengo baldintzak bete behar dira:

- Lan eskatzaile gisa Lanbide erakundearen izena emanda egotea, langabetu bezala.
- Usurbilen erroldatua egotea.
- Euskara: ahozko erabilpen egokia, 1. profilaren baliokide.
- Gidatzeko baimena izatea.
- Gainera, igeltsero ofizialak, obra zibileko zereginetan igeltsero ofizial bati dagozkion ezagutzak eta esperientzia izan behar dituzte.
- Igeltsero peoiaren kasuan berriz 6 hilabetetako esperientzia izan behar du aipaturiko lanbidean.

Lehen tasuna izango dute:

- Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu dutenak.
- Azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana.
- Langabezia laguntzarik ez jasotzea.
- Diru Sarrerak Bermatzeko errentaren jasotzaileak.
- 35 urte baino gazteagoa eta 45 urte baino zaharragoa izatea.
- Emakumea izatea.
- Pertsona desgaitua izatea.

# Kirol desafio itzela larunbat honetan, Orioko Kilometroak jaialdiaren alde

Lehia bizia izango da, ikuskizun ederra ziurtatua dago Orion, larunbat goiz honetan, martxoaren 8an. Kostaldeko udalerrri honetan datorren urriaren 5ean ospatuko den Kilometroak jaialdia girotze-ko Kirol Erronka antolatu duite Herriko Plazan. Punta-puntako kirolariak gonbidatu dituzte hitzordura; Kilometroak ospatuko den herriko kirolariak, oriotarrak; mugakide dituzten herrietakoak, usurbildar eta zarautzarrak; eta 2013ko Kilometroak ospatu zen herrikoak, tolosarrak.

Antolatzaileentzat ez omen da lan erraza izan, agenda arazoak tarteko, kirolariok Orioko hitzordurako biltzea. Baina azkenean goi-mailako 16 lagun erakartzea lortu duite. Parte hartzaileen artean, beteranoak; Abraham Olano handia esaterako. Etxekoan artean, Kirol Erronka aurrez udalerrri horretan antolatu izan duen oriotar bat, Hossain Kaanache. Eta duten guztia ematera joango diren belaunaldi berriko lehiakideak ere bilduko dituzte ekimen honek.

Horien artean usurbildarrak; Joxemiel Peñagarikano aizkolariaren seme Mikel igerilaria, hainbat plusmarka eginak dituen; Iñaki Añorga, Baxurde Txikiko eta Euskadiko duatloi selektzio-ko kidea urte askotan; Ibai Alba korrikalari eta triatleta; eta azkenik, Sarai Lizaso Orioko arraunlari ohia, egun San Juango taldean dabilena. Asteburuetan ETB-n ikus dezakegu, "El Conquistador" realitysaioan. Kirolari guztiok, igerian, korrika, bizikleta estatikoan eta ergometroan lehiatuko dira.



Kirol Erronkan hartuko du parte Sarai Lizasok. Usurbilgo taldea ordezkatzuz, hain zuzen.

## LARUNBATEAN, ORION

**"Orio, Usurbil, Zarautz eta Tolosako ikasleek zein pertsona ospetsuek hartuko dute parte Kirol Erronkan"**

### Usurbildarrak favorito

Lehia estua izango omen da. Talde orekatuak osatu dituzte, nahiz Kirol Erronkako txapela irabazteko faboritoak, hasiera batean usurbildarrak izan daitezkeela dioten. Udalerrri hau ordezkatzeko duen talde kideetako batek parte hartu zuen hain zuzen, Kilometroak jaialdiaren aldeko ekimen honi loturiko prentsaurrekoan; Sarai Lizaso arraunlariak.

Larunbateko hitzordurako gonbita jaso zuenean, bitan pentsatu gabe baiezkota eman zuela eta martxoaren 8an Orion izango dela baieztatu zuen arraunlari gazteak, Iñaki Añorga, Ibai Alba eta Mikel Peñagarikanoekin batera. Astebururo ETB-2ko "El Conquistador" realityan ikus dezagun usurbildarrari erronka zaila jarri diote. "Neure kasuan proba ez da erraza izango, ze 3.000 metro ergometro batean neska batentzat, normalean ez gaude ohituta distantzia hori egitera. Eta gainera hiru gizonen aurka, nahiko gogorra izango da. Halere ahal dudan guztia emango dut, erronkak gustuko baititut. Saiatuko naiz, abantaila hain handia ez izatea. Erraz behintzat ez diet utziko", adierazi zuen Saraiak.

Usurbilgo laukotea, igerian, bizikletan, ergometroan eta korrika lehiatuko da erlojuz kontra, oriotar, zarautzar eta tolosarrekin. Kilometroak jaialdiaren alde, kilometro asko egin beharko dituzte guztien artean. Proba bakoitzak 10-15 minutuko iraupena izango du. Gehienak Orioko Herriko Plazan, edo inguruetan jokatuko dira. Proba guztiotan denbora onena egiten duen taldeak eraman- go du Kirol Erronkako txapela.

### Ikasleak ere lehian

Usurbildar, oriotar, zarautzar eta tolosarrak, baita gipuzkoar oro ere, Orioko Kirol Erronka ikustera gonbidatzen dituzte antolatzaileek.

Martxoaren 8an, goizeko 9:30ean Orioko Herriko Plazan.

## Mikel Peñagarikano, Iñaki Añorga, Sarai Lizaso eta Ibai Alba, Usurbilgo taldean

■ 9:30 Kirolarien aurkezpena, Orioko herriko plazan.

■ 10:00-12:00 Kirol erronka (10-15 minutuko probak):

Igeriketa proba Orio ibaian: herriko plazatik Arin y Embil pareraino, hiruzpatalau joan etorri. 700 metro pasatxo.

Bizikleta proba: herriko plazan 2 txandatan, bizikleta estatikoan. 5.000 m.

Ergometroa: herriko plazan. 3.000 m.

Korrika: herriko plaza eta Kaxko inguruetan. 4.000 m.

■ 12:00 Mosaikoaren proba. Parte hartzaileak: Usurbil, Orio, Zarautz eta Tolosako ikasleak.

### Usurbil

Igerian: Mikel Peñagarikano, Bizikletan: Iñaki Añorga, Ergometroa: Sarai Lizaso, Korrika: Ibai Alba.

### Orio

Igerian: Adriana Campoy, Bizikletan: Eneko Santamaria, Ergometroa: Iñigo Mujika, Korrika: Hossain Kaanache.

### Zarautz

Igerian: Eneritz Garmendia, Bizikletan: Jon Unanue, Ergometroa: Erik Aranburu, Korrika: Gillerimo Vahl.

### Tolosa

Igerian: Maider Gaztañaga, Bizikletan: Abraham Olano, Ergometroa: Iñigo Jauregi, Korrika: Leire Agirrezabala.

Oharra: kirolariokin batera, Usurbil, Orio, Zarautz eta Tolosako ikasleek ere parte hartuko dute.



## ETB1eko Hizkamizka saioan izan da Eneritz Olasagasti “Galtzekorik ez duzu eta irabaztekorik bai”

**L**okalean ikusi genuen denak batera. Alegia, lagun artean ikusi zuela Hizkamizka saioko bere partehartzea. Aldez aurretik grabatu zen bere programa. Orduan, ez zekien oso ondo nolakoa zen ETB1eko Hizkamizka. Orain, beste aukeraren bat izango balu, hobeto moldatuko litzatekeela ziurrenik. Esan behar da aurkari gogorra tokatu zitzaioela. Pentsa, jarraian 30 saio irabazi ditu Ioritz Berra donostiarrak.



Aurreko astean hartu zuen parte Hizkamizka lehiaketan. QR horrekin bere saioa ikus dezakezue.

### NOAUA! Nola ikusi zinen telebistan?

**Eneritz Olasagasti.** Han oso urduri egon nintzen, une oro posturak aldatzen. Lasai ikusten zitzaidala eta solturekin bezala esaten zidaten lagunek.

### Umorez gainera.

Bai, nerbioak lasaitzeko, badakizu...

### Gai eta mota ezberdineko galderak egiten dituzte, prestaketa berezirik egin al

### zenuen?

Nik ez nekien nolakoa zen saioa. Apostu bat izan zen. Betikoa, baietz joan, ezetz... Klaseko lagun batek apuntatu zidan. Eta tira, galtzeko ezer ez nuen. Esperientzia berri bat izan da niretzat.

### Galdera-erantzun bidezko lehiaketa zela bazenekien ordea, ezta?

Bai, erredaktorea hurbildu zi-

tzaidan probak nola ziren azaltzera. Baina azkenean, informazioa eman arren, jarri arte...

### Beraz, partehartu eta gero, hobeto ezagutzen duzu saioa orain.

Hori da!

### Ez dakit Trivial eta antzekoetan jokatzeko ohitura duzun.

Bai, horrelako jokoetan ibiltzen

naiz, eta telebistan antzeko saioak ikusten ditut. Baina bertara joan arte, ez dakizu benetan nolakoa den.

### Honek asko du bistaren azkartasunarekin zerikurik, ezta?

Hala da. Pendiente egon behar duzu seinaleekin, eta horren arabera botoiari aurkariak baino lehen ematearekin. Eta botoiari eman ondoren, ikusi zer den tokatu zaizuna!

## Klaseko batekin egindako apostua

**NOAUA! Lehiakide gogorra tokatu zaizu.**

**Eneritz Olasagasti.** Nirekin zegoenean, 30garren programa zuen eta 800 euroko botea zuen pilatuta. Beste lehiakide bat etorri eta berak egindako botea eramateko aukera izatea, horrek ematen zion amorru gehien. Gero lasaitu zen. Eta hor jarraitzen du oraindik!

**Diruarengatik, esperientziarengatik? Zergatik aurkeztu zinen Hizkamizka telebista saiora?**

Nire kasuan, klaseko bate-



Galdu arren, oso ondo pasa zuela eta oso gustura izan zela aitortu digu.

kin egindako apostuarengatik izan zen. Galtzekorik ez duzu eta irabaztekorik bai. Saioa irabaziz gero, 200 eu-

ro eramaten dituzu eta aukera duzu gainera botea eskuratzeko.

Eta saioko botea ez badu-

zu eramaten, 100 euro gehitzen zaizkio boteari.

Galduz gero dietak pagatzen dizkizue, beraz norbaitek animatu nahiko balu...

### DATORREN ASTEAN, LISBOARA HIRU HILABETERAKO

**Animazio Soziokulturala eta Turistikoa ikasten ari zara Hernanin, gustura?**

Bai, oso gustura nago ikasketekin. Datorren astean praktikak egitera noa, Lisboa. Hiru hilabete egingo ditut han, fundazio batean praktikak egiten.

# Herri oso bat mozorropean



**S**oldaduak, errege-erreginak, apaizak, bufoiak, herri xehea... Erdi Aroko estamentu guztiak ordezkatu

zituzten usurbildarrek joan den larunbateko Inauteri Festan. Eguraldi kaxkarra izan arren, jai giroa nabaria zen eguerditik. Gero eta

gehiago dira, bazkalarretik mozorrotu eta kaleratzen direnak. Baita karroza eder askoak lantzen dituztenak ere. Eta aldatzen ez den zer-

bait; primeran pasatzen dute guztiak. Irri bat ahoan dutela, goizaldera arte. Ondoko irudiak horren guztia- ren lekuko.



Argazkia: Peiope



Gehiengo oso batek Erdi Aroa izeneko proposamenarekin egin zuen bat. Baina salbuespenak izan ziren. Michael Jacksonen *Thriller* dantzariak, adibidez.



## Festa giroan murgiltzen lehenak, ikasleak



Zumartekoak izan ziren mozorrotzen lehenak, Sutegin eskaini zuten kontzertuan.



Zubietako Eskola Txikiko ikasleek frontoian eskaini zuten dantzaldia, aurreko ostiralean.



Udarregiko ikasleek, ohi bezala, mozorro eta dantzaldi ederrak prestatu zituzten.

## Inauteri Festako hainbat pasarte bideo iruditan jaso ditugu



Udarregi ikastolakoan dantzak, Usurbilgo Erraldioen Konpartsak edota Michael Jacksonen *Thriller* topatuko dituzue [youtube.com/noauatb](https://www.youtube.com/noauatb) kanalean.

# Gauetz ere jarraitu zuen mozorro festak



# Xabi Olano, Patagonian barrena

**P**iragua eta kayak kon-tuetan ibiliak dira aurretik. Horrela ezagutu zuten elkar Aitor Goikoetxeak, Mikel Sarasolak eta Xabi Olanok. Aitor eta Mikel donostiarrek dira eta Xabi usurbildarra. Bi hilabeteko abentura hasiko dute aste honetan. Argentina eta Txileko uretan 600 kilometroko ibilbidea osatzeko asmoa dute. Xabi Olanok eman dizkigu abentura berri honen xehetasunak.

Arkitektura karrera bukatzen ari da Xabi Olano. “Proiektuarekin nabil orain. Aparte utzi dut denboraldi batez espedizio honetan murgiltzeko. Ezin nuen horrelako aukera bat pasatzen utzi”, adierazi digu. Aurretik, kayak-surf txapelketen gatik izan da orriotan. Honakotan, abentura baten berri eman-gu digu.

## NOAUA! Zuek diseinaturiko espedizioa da hau, ezta?

**Xabi Olano.** Mikel Sarasola izan zen lehengo urtean Argentinan lanean, eta hango ibaiak ikusten ibili zen. Orduan otu zitzaion espedizio honen ideia. Berak proposatutako bide bat egingo dugu beraz. Nagusiki bi piragua mota erabiliko ditugu: ur-bizien piragua, ibaiak jais-teko; eta itsasoko kayak-ak, lakuak gurutzatzeko. Espedizioan zehar, tartekatuta egingo ditugu ibaiak eta lakuak. Paine ibaia da akaso potenteena, oraindik jaitsei ez dena. Eta espedizioa Ozeanoan amaituko dugu. 570 kilometro izango dira guztira.

## N. Garazi Iturralde zubieta-rra bezala, zu ere kayak-surfean trebea zara. Hainbat txapelketetan aritu zara. Baina piraguan baduzu esperientziarik?

**X. O.** Ibaian hasi nintzen baina piragua txikian, estilo librekoan. Gero kayakera pasa nin-



Mikel Sarasola eta Aitor Goikoetxea donostiarrekin batera Patagonian izango da bi hilabetez Xabi Olano (argazkian).

### XABI OLANO

**“Egunero 30 kilometro egingo ditugu, bataz beste. Han topatuko dugun zailtasun handiena klima izango da. Hotza eta haizea”**

tzen, itsasoko olatuak hartze-  
ra. Baina ibaian badaukat oi-  
narri on bat. Errekan, mutu-  
rreko kayak estiloan ordea, ez  
naiz hainbestetan aritu. Alde  
horretatik, badu erronkatik,  
bai.

## N. Hau prestatzeko, entrenamendu bereziak egin behar izan al dituzu?

**X. O.** Bai, muturreko kayak-en  
entrenatu dut batez ere, eta  
gero gimnasioan ere ibili gara.

## N. Zure bi espedizio kideak ezagutzen dituzu lehenago-tik, ezta?

**X. O.** Aitor eta Mikel betitik  
ezagutzen ditut. Atletikoen hasi  
ziren ere, eta txapelketetan  
kointziditu izan dugu. Mundu  
honetan denak ezagutzen du-  
gu elkar. Beraiek proposatu zi-  
daten, eta horrela sortu zitza-  
dan aukera hau.

## N. Uda amaiera edo udazken hasiera harrapatuko duzue han.

**X. O.** Udazken hasiera izango  
da. Glaziarrek daude inguru-  
an eta udako beroarekin ur-  
tzerakoan ibaiak ur askorekin  
doaz. Udazkenean ordea  
ibaian emaria jaitsei egiten da  
eta horregatik goaz data  
hauetan. Ibaiak jaisteko garai  
egokiena delako haxe.

## BI HILABETEZ LUZATUKO DEN ABENTURA

**N. Bi hilabeteko abentura izango da. Aldez aurretik ordea, planifikatuta izango duzue zuen eguneroko mar-txa. Nolako izango da?**

**X. O.** Espedizioa lehen egu-  
nak gauzak lotzen emango di-  
tugu. Eta ondoren, hasiko ga-  
ra uretan.

Egunero 30 kilometro egin-  
go ditugu, bataz beste. Han  
dagoen zailtasun handiena  
klima da. Hotza eta haizea.  
Badakigu egun batzuetan hai-  
zea kontra izango dugula. Eta  
oso gogorak izango dira, aka-  
so ez ditugu 10 kilometro ere  
egingo. Baina beste egun bat-  
zuk hobexekoak izango di-  
rela espero dugu.

## “Gu eta piragua, naturaren erdian”

**NOAUA!** Zuen kayak-etan era-  
man beharko dituzue jateko-  
ak eta lo egitekoak, ezta?

**Xabi Olano.** Ibaian joan edo itsa-  
soan joan, piraguetan eramango  
ditugu oinarritzko gauzak. Tramo-  
ka antolatu dugu eta hainbat zati-  
tan probisio berriak jasoko ditu-  
gu. Gehienez ere astebeteko jana-  
ria eramango dugu gurekin.

## N. Txapelketak medio, ibili zara munduan zehar. Baina Argentina eta Txile aldean egon al zara aurretik?

**X. O.** Ez, lehen aldia da niretzat.  
Eta oso erakargarria da zentzu  
horretan. Naturan murgilduta  
egongo gara, ia ia aislatu-  
rik. Gu eta gure piragua, naturaren  
erdian. Eta beharrezko guztia  
piraguan eramango dugu.

## N. Blog baten bidez jarraitu ahal izango ditugu espedizioaren gorabeherak, ezta?

**X. O.** Bai. Ez dugu arazorik aurrei-  
kusten baina badaezpada telefo-  
no bat eramango dugu, eta tele-  
fono horren bidez kontaktua man-  
tenduko dugu. Gure asmoa da  
egunean behin zerbait kontatzea  
gure blogean. Gero ikusiko dugu  
egunerokotasunean nola molda-  
tzen garen.

# Korsikako berri, Kantu Taldeak antolaturiko Topaketa hasteko

**B**ost urte bete dituen herriko taldeak, urtemuga berezi hau ospatzeko 2014rako iragarri dituen ekimen berezien baitan Euskal Herria-Korsika topaketa antolatu du hurrengo asterako, martxoaren 13 eta 14rako. Hasteko, Korsikari buruzko hitzaldia eskainiko du Sutegin, Ezker abertzaleko nazioarteko harremanetarako arduradun ohi Joseba Alvarez Forcadak.

"Korsikak Frantziako konstituzioa aldatuz eskumen gehiago lortu nahi ditu. Korsikera hizkuntzaren koofizialtasunaren alde agertu berri da Korsikako Biltzarra. Zertan da kortsikeraren egoera? Korsikako FLNC, berriz ere armak hartzeko prest da (2013ko ekaina). FLNC -Fronte di Liberazione Naziunale Corsu- ofizialki 1976an sortu zen eta Korsikaren independentzia aldarrikatzen du. Erakunde honen erasorik ohikoenak uharteko higiezin-enpresen interesen eta estatuaren aparatuen ofizialen aurkakoak izan dira. Frantziak azken 200 urteetan kortsikarren izan duen jarrera kolonialista ere etengabe salatu dute komunikatuetan. Honetaz guztiaz jardungo du gai hauetan aditua den Joseba Alvarezek", Kantu Taldeak iragarri dutenez.

## Kantu afaria

Biharamunerako berriz, hitzordu bikoitza deitu dute Kantu Taldekoek. L'Arcusgi talde korsikarra gonbidatu dute Usurbilera. Emanaldia eskainiko dute Sutegin. Saiorako sarrerak aurrez erostea gomendatzen dute antolatzaileek, baita jarraian Iruin sagardotegian egingo duten kantu-afarirako ere. Kor-



**Korsikako egoeraren berri izateko aukera aparta izango dugu martxoaren 13ko hitzaldian.**

sikarrekin eta Kuxkuxtu txarangakoekin batera ospatuko den hitzordurako, 100 lagunentzako lekua dago. Sarrerak ahalik eta lasterren erosi, antza txartel asko saldu baitituzte jada.

## Egitaraua

### Martxoak 13, osteguna

19:30 Hitzaldia Sutegin: "Korsika. Gaur egungo egoera politikoa, soziala eta kulturala". Sarrera, doan.

### Martxoak 14, ostirala

19:30 Kantu jaialdia Sutegin, L'Arcusgi korsikar musika talde polifonikoaren eskutik. Sarrerak aurrez; 5 eurotan, Lizardin. Edo egunean bertan, 10.

21:30 Kantu-afaria Iruin sagardotegian, L'Arcusgi taldekoekin eta Kuxkuxtu txarangarekin. Txartelak salgai: martxoaren 9ra arte, Lizardin eta Artzabal. Prezioa: 25 euro.

Antolatzailea: Kantu Taldea.

Laguntzailea: Iparra-Hegoa.

Babeslea: Usurbilgo Udala.

## Aurrematrikulazioa zabalik, Ziortzako udako kanpaldian

Martxoaren 17ra arte egongo da apuntatzeko aukera. Uda honetarako bi txanda antolatu dituzte, Errioxako Peñaloscintos aldera joateko: lehenengo, DBHko ikasleentzat, uztailearen 8tik 22ra; eta bigarrena, uztailearen 22tik 31ra Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailakoentzat.

Izen emateko orriak Parrokian eta Sutegin eskuratu ahal izango dira. Orriok, datuekin bete-

ta, beranduenez martxoaren 17rako Parrokiko postontzian utzi beharko dira, edo postaz bidali bestela, helbide honetara: ziortzage@gmail.com.

Martxoaren 15ean, larunbatez, 11:00-13:00 artean ere Parrokira gerturatuta apuntatu ahal izango da. Kanpaldiko antolatzaileek ohartarazi dutenez, udako kanpaldirako plazak mugatuak izango dira.

## Konponbidez solasaldia, ostegunean Sutegin

"Preso eta iheslarien ekarpena konponbidean" hitzaldia antolatu du Aitzaga Elkarteak, ostegun honetarako, martxoak 6, 19:00etatik aurrera Sutegin auditorioan. Iazko ekainaren 15ean Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak eta abenduaren 28an, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak urte luzeetako gatazka politikoaren konponbiderako bide-orientazio politikoaz jardungo dute: Iheslari Politikoen Kolektiboko mintzakide den Xabier Miguel Ezkerra usurbildarrak (bideo-konferentzia), Juan Karlos Ioldi preso ohi eta Harrera taldeko kideak; eta Amaia Izkok, abokatu eta Sortuko bozeramaileak. Solasaldi irekia izango denez, galderak egiteko aukera egongo da.

## Gure Esku Dago Eguna, martxoaren 22an

Egitaraua lotzen dabilta antolatzaileak, baina aurreratu dutenez, eguerdi partean musika emanaldi sorpresa izango omen dugu frontoi inguruan. Gau partean, afaria Usurbilgo Gaztetxean eta ondoren, bertso musikatuen saioa. Afaritarako txartelak, salgai daude 13 eurotan, Txapeldun, Artzabal, Antxeta, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga, Txiriboga eta Patri tabernetan. Afaritarako menua honako hau da: entsaladilla urretsiarra, biribilkia saltsan, ijito besoa, edaria eta kafea.

Afalosteko bertso musikatuen saioan Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Iñigo Mantzisor (Mantxi) eta Manex Mujika bertsolariak. Eta Ixak (kitarra) eta Gari (biolina) musikariak arituko dira.



**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra  
943 24 01 76 eta  
649 435 470  
errazkinsl@euskalnet.net  
Oztaran auzoa 33, URNIETA

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK  
 645417665  
XABIER  
Usurbil

  
Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**  
  
K/nagusia 14. © 943 362 725

# Igandean, 25. Lilatoia



Bost kilometroko luzera duen herri lasterketa honetan usurbildar askok hartzen dute parte.

**E**makumeen Egunaren biharamunean ospatuko da Donostian. Goizeko 11:00etan abiatuko da Bulebarretik, 5 kilometro luze izango dituen herri lasterketa. Hiriburuko erdigunea,

eta Gros ingurua lotuko ditu ibilbideak. Lilatoiarekin batera, 6. Lilaroller proba ere ospatuko da. Kirol ekimen honetan izena emateko epea, otsailaren 28an itxi zuten.

## Udaberri Txapelketako lehen faseari ekingo dio Tximeleta Taldeak

Martxoaren 16an igandea, Udaberriko Txapelketako lehen fasea jokatuko da Oiartzungo kiroldegian. Goizeko 10:00etatik 13:15ak arte iraungo du gimnasia erritmikoko ikuskizunak. Tximeleta Taldeak antolatu du Oiartzungo saioa, Gipuzkoako Gimnastika Federazioaren eta Elorso Kiroldegiaren laguntzarekin.

Soinketa erritmikoko txapelketa honetan, Gipuzkoako kirol elkarte ezberdinek hartuko dute parte. Tartean, Udarregi ikastolako ikasleek. Beraiekin batera, noski, Gipuzkoako beste toki batzuetatik etorritako kirolariak batu dira Oiartzunen.

## Finaletara iritsi dira Usurbilgo Pilota Elkarteko bi talde

Xabi Santxok eta Julen Urruzolak Azkoitian jokatuko dute Euskal Herriko Txapelketako ohorezko mailako finala. Enrike Huizik eta Mikel Landak, aldiz, Gipuzkoako Trinkete Txapelketakoa.

**Euskal Herriko Txapelketa, Ohorezko maila**  
Azkoitian, martxoak 8, larunbata, 17:00etan  
ZAZPI ITURRI (Amezketak)  
USURBIL (Xabier Santxo - Julen Urruzola)

**Gipuzkoako Trinkete Txapelketa**  
Iruran, martxoak 8, larunbata, 18:30ean  
BEHAR ZANA - USURBIL (Enrike Huizi-Mikel Landa)

## Igandean, Belate-Arraras inguruak bisitatzeraz

Andatzakoek martxorako antolatu duten irteera duzue. Joan etorria autobusez egingo denez, aurrez izena eman beharra zegoen. Apuntatzeko azken eguna, martxoaren 5a, asteazken hau zen. Irteeran parte hartzeraz doazenez, gogoan izan, igande goizeko 7:00etan finkatu dute biltzeko hitzordua, Oiardo Kiroldegian. 23 kilometroko bidea osatuko dute martxoaren 9an.



Belaten barrena ibiliko dira Andatzakoak.

## Futbola Haranen

### Martxoak 8, larunbata

15:30 Neskak: Usurbil F.T.-Zumaia  
15:45 Kadeteak, areto futbola (Lasarteko Kiroldegian): Usurbil F.T.-Anoetako Ikastola

### Martxoak 9, igandea

17:00 Jubenilak: Usurbil F.T.-Hernani C.D.

## Eskubaloia Oiardon

### Martxoak 8, larunbata

9:30 Alebin mutilak:  
Udarregi 5A-Urnieta 5A  
10:30 Infantil neskak:  
Udarregi B Usurbil-La Salle Legazpi  
11:30 Infantil mutilak:  
Udarregi Usurbil-Ordizia Orkli  
18:30 Jubenil mutilak, Urnieta Kiroldegian  
Udarregi Usurbil-Karibe Zaharra

### Martxoak 9, igandea

10:00 Kadete neskak: Usurbil K.E.-Zuazo  
11:30 Senior mutilak, 1. territoriala:  
Usurbil K.E.-Ordizia Eskubaloia

**JOSETXO IKATZETA**  
Iturgintza  
TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

**TXAPELDUN**  
TABERNA  
razioak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak...  
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
URDAINTZI@EUSKAINET.NET  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Sanesteban kalean pisua salgai. 3 logela, sukalde-egongela, komuna, eta balkoia. Dena berriua. Tel. 699 680 265. 135.000€.

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukeratu ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berriua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxe modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horieta bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatant (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAk ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berriua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetetako pisua salgai. Dena berriurik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Gela bat alokatzen dut. Prezio interesgarria. 657 535 299.

Santuenean, diseinu polita eta berriua. 570€. 2 logela, 2 hila-beteko fiantza. 667438145

Sanesteban kalean pisua alokairuan. 3 logela, sukalde-egongela eta balkoia. Prezioa: 500 euro. Tel. 652 741 833.

Santuenean, diseinu polita eta berriua. 600€. 2 hila-beteko fiantza. txangu68@hotmail.com

Lasarten, Zumaburu auzoan, lokal bat alokatzen da. 150€ hilabetean. Erreforma txiki bat behar du. Tel. 687 348 223.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. 2 logela, egongela, sukalde eta trastelekuarekin. 550€ negoziagarriak. Tel. 637 962 568.

"Logela bat alokagai. 250 euro + gastuak. Kale Nagusian. 606 642 161

Pisua alokairuan Santuenean. Berriua, 2 logela. Urtariletik aurrera. Fidantza gehi 2 hilabete aurreratuak. 630€

Usurbilgo pisu batean, logela bat libre konpartitzeko. 290€ hilabetero, Wifi, ura, elektrizitatea eta gas-

tu guztiak sartuta. Giro ona, pisu dotorea eta handia. 657 700 408.

Atxegalden pisu bat. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, terraza eta igogailua. 637 309 209.

Gela bat alokatzen da Usurbilen. Pisua egokia eta gela handia. Tel. 691 898 800.

Etxe bat Txokoalden. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta terraza handi bat. 688 863 366

3 gelako etxea alokagai erdialdean 700€ gehi gastuak. Gelaka ere alokatuko genuke. 630713583

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berriua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

**MOTORRA**

**salmenta, garajeak**

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratuak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

Garaje (marra) bat alokatzen da Kale Nagusian 60€ hilabetero. 657 700 408.

Garaje itxia alokatzen da Txararuntzo auzoan. 15 metro karratuko. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karratuko. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa. Telefono zenbakia: 667984083

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxe lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziekin. Tel. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka... Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketaren eta ostalaritzan) 698322406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest: LHn ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta ingurumena. DBH eta Batxilergoan ingelesa, frantsesa, euskara, gaztelera eta filosofia arloak, baita ingelesez ematen diren gaiak ere. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluekin. 619511789 / 943 760418.

Erizaintza laguntzaile bat. Sukalde eta masajeko titulazioarekin. Pertsona helduak, gaixoak edo umeak zaintzeko. Esperientzia frogagarriarekin. 943 36 50 79.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeak garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketaren edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsuak lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen

ditut. Paisiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altzariak konpondu. 634 181 059.

Etxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxe lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrek eman edo etxerako lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli\_ireth@hotmail.com

Klase partikularrek ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatze eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzailer moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrek ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Orduetegi eta prezioak adosteko erabateko malgutasuna. 634417969 (Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintza graduatua naiz eta gaixodunen pertsoneri erizaintza zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldetik. Irakaskuntza graduatu bukatze eta aisialdi talde batean begiztalar lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrek ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta erreferentziak klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizez zein arratsaldetik. Irakaskuntza diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.



**Zorionak Jon eta Iera!!** Martxoaren 7an

eta 11n zuen urtebetzea izango da! Ondo ospatu eta muxu asko etxe guztien partez.



**Zorionak Naiara!!** Gure printzesak, martxoaren

8an 6 urte beteko ditu. Ondo pasa eta muxu asko etxe guztien partez.



**Zorionak Nahia!** Hiru muxu pottolo

familia guztiaren partez. Primeran pasa!!



**Zorionak Oihan!** Martxoaren 11n 6 urte beteko

dituzu. Ondo ondo pasa eguna eta muxu asko etxe guztien partez.



**Zorionak Iera!** Martxoaren 11n, 6 urte beteko

ditu. Zorionak eta 6 muxu handi handi Aizpea, Jon eta etxe guzti guztien partez!



Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria presatatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenierritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrik emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrik emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrik emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-

kalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrik emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak

zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bateskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketarako. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

### Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak asteleheneretan 18:00-20:00)

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenera ostiralera. 635742503

### BESTELAKOAK

Gidari arduratsu bat eskaintzen da

etxepribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. Tel. 696 264 197.

Josteko makinak salgai. Prezio onean. Tel. 943 36 32 01.

Belar fardoak salgai. 943 36 20 72.

6 hilabeteko Bulldog frantsesa galdu da, txuria orban beltzekin, Txokoalde inguruan. Norbaitek ikusiko balu deitu 637 93 20 58 (Silvia)

Iphone 5 telefono mugikorra galdu nuen Eguberrietan. Topatu baduzu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Mahaspildegilokartean bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valentziako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kilo. Bitartekari rik gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratzak ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak

salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suak salgai. Bi urteditu eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talle, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretsua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Telebista salgai, Sony, Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Erosi gasolina sorgailu elektriko, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari liriko. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udalzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arretea	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

## Goardiako farmaziak martxoak 6-martxoak 16

<b>Osteguna</b>	<b>6</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Ostirala</b>	<b>7</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
<b>Larunbata</b>	<b>8</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Igandea</b>	<b>9</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Astelehena</b>	<b>10</b>	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
<b>Asteartea</b>	<b>11</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Asteazkena</b>	<b>12</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

<b>Osteguna</b>	<b>13</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
<b>Ostirala</b>	<b>14</b>	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola kalea, 9 Lasarte
<b>Larunbata</b>	<b>15</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
<b>Igandea</b>	<b>16</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

# Agenda martxoa

## 6 osteguna

- **Emakumeon Eguna: Bertso afaria.** 21:00etan Artzabalen. Informazio gehiago: 8 or.
- **Solasaldia Sutegin: Preso eta iheslarien ekarpena konponbidean.** 19:00etan Sutegin.

## 7 ostirala

- **Maitasun erromantikoa eta mikromatxismoak.** Ainara Santamariaren eskutik, gaztetxean. 22:00etan. Antolatzailea: Gazte Mugimendua.

## 9 igandea

- **Belate-Arrarasera irteera** 7:00etan Oiardo Kiroldegitik abiatuta. Plaza mugatuak, alde aurretik izena eman behar zen. [www.andatzamendizale.info](http://www.andatzamendizale.info)
- **"Zorion perfektua".** Zine zikloa euskaraz, helduentzat. Sutegin, 18:00etan.

## "Zorion perfektua", euskarazko zine zikloa agurtzeko

Igandean, martxoak 9, 18:00etatik aurrera Sute-giko auditorioan. Sarrerak egunean bertan salgai, 5 eurotan. Usurbilgo Udalak azarotik orain arte antolatu duen euskarazko zine zikloko hamargarren eta azken filma izango da asteburukoa. Haur eta helduentzako bosna lan proiektatu dira Sutegin, azken hilabete hauetako lehen bi igandeetan.

- **Sinopsia:** Bartzelona erdialdeko kaleetan izan zuten istripuak zapuztu egingo dio Ainhoari piano karrera. Bizitza sentimentalak ere ez dio poztasun handirik ematen. Istripua izan baino lehentxeago Imanol ezagutu zuen, baina sentimenduak adierazteko duen zailtasunak eragotzi egin zion bizitza harekin partekatzea. Hamabost urterekin ETArek atentatu bat ikusi zuen eta horrek eragin zion beldur hori.
- **Izenburu originala:** Zorion Perfektua.
- **Iraupena:** 90 min.



Anne Igartiburu da "Zorion perfektua" pelikulako protagonistetako bat.

- **Urtea:** 2009.
- **Generoa:** Drama.
- **Kalifikazioa:** 13 urtetik gorakoentzat.
- **Zuzendaria:** Jabi Elortegi.
- **Aktoreak:** Anne Igartiburu, Aia Kruse, Alberto Berzal, Elena Irureta, Félix Arkarazo, Amaia Lizarralde.

## Datozenak

### EHGAM-ek antolaturiko sagardotegiko afaria, martxoaren 29an

Arratzain sagardotegia hautatu du Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua, "Maribollotrans Sagardotegia" ospatzeko. Afaritara joan nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, martxoaren 24a baino lehen. Egun horren aurretik egin beharko da ordainketa, Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0063 82 0630030222. Prezioak: 24 euro afaria, 32 euro otordua eta Arratzain sagardotegira joateko autobusa. Ordainketak egiterakoan, ez ahaztu nork bere izen abizenak adierazteaz. Afalurretik, trikipotea ospatuko da Txirris-tratik abiatuta.

18:15 Donostiako Amara Plaza hotelaren ondoko geltokian biltzeko hitzordua. Autobusez Usurbilera.

18:45 Trikipotea Txirris-tratik abiatuta.

20:30 Afaria Arratzain sagardotegian.

01:00etatik aurrera, Kikili-festa Donostiako Dokan, DJ Askea eta DJ On-ek girotuta.



Afaria Arratzainean egingo da.

### Ostegun honetan, Soinurbileko lipdub grabazioaren entsegua

Martxoak 6 osteguna, Soinurbileko lipdub grabazioaren entsegu orokorra egingo da 18:00etan, Zumarte Musika Eskolan. "Ikasle guztiei dei egingo dizuegu egun-ordu horretan Zumartera etortzeko, instrumentua jotzen duzuenak, instrumentua ekarri!".

### Jangeletako elikadura ekologikoa hizpide, datorren astean Udarregin

Martxoaren 13an osteguna 18:00etan, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. "Zergatik elikadura ekologikoa Haur Eskolan eta ikastolako jangeletan?" solasaldia, Hitz Ahok, Haur Eskolako Guraso Taldeak eta Ekolapikok antolatuta. 0-16 urte arteko ikasleen aita-amei zuzendua dago.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.com

LATAILLADE  
ITURGINTZA

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

# OSASUN GIDA 2014



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Entzumeneko aparatua • Igeniekuko tapoiak neurrira eginda  
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

**50€-ko**  
**BALEA**

DSQUARED, TOMFORD,  
DIOR eta ARMANI markako  
monturetan



**Ibaiondo**

**Fisioterapia**  
**Osteopatia**  
**Errehabilitazioa**  
**Masajeak**

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxa: 943 370 306

**Kima**  
MASAJE LEKUA



• Kirol masajea  
• Masaje terapeutikoa  
• Kolonaren hidroterapia  
(idortasuna eta haize arazoak hobetzeko)

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

**Öinutsik**

podologia zentroa

Puntapax 6B, behea ezkerre - Tel. 943 11 09 54

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia



Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Dermofarmazia

Produktu homeopatiakoak

Maisu formulak



Barda berri 7, 20770 USURBIL 943 36 33 95

[www.iturraldebotika.com](http://www.iturraldebotika.com)

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

**URDAIRA**

**Sagardotegia**  
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**

**OTSUA-ENEA**  
SAGARDOTEGIA

**943 55 68 94**

Osinaga bailara, **HERNANI**

**LARRE-GAIN**  
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrietik maiatzak 5era  
TXOTX-GARAIA  
Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**  
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

**iruvin**  
sagardotegia

☎ **943 36 12 29**

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)

**ELUTXETA**  
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • ☎ **943 55 69 81**

**SAIZAR**  
Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39  
**USURBIL**  
Sagardotegiko erreserbak:  
**943 37 39 95**  
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)  
[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

**SAGARDOTEGIA**  
**aginaga** Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

**943 36 67 10**

Aginaga, **USURBIL** [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)

Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

**AIALDE BERRI**

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea